EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bizkaia

nexio. consulting
an ieteam_ company

Aurkezpena
Tarteko ebaluazioa

Ezkerraldea-Meatzaldea Eskualdeko Plan Estrategikoa

2026ko apirila

ABANTO ZIERBENA UDALA • AYUNTAMIENTO | Barakaldo CIUDAD·HIRIA | E! Erandioko Udala | MUSKIZ UDALA | Ortuella Udala | Ayuntamiento de Portugaleteko Udala | Santurtzi | Sestao Udala Ayuntamiento | Trapagaran | ZIERBENA ITSASOKO ZAPOREA SABOR A MAR

Programa eraldatzaile bat identifikatzeko eta bultzatzeko esparru estrategiko gisa garatu zen, lurraldearen erronkei heltzeko gai diren proiektu estrategiko eta trakzio-programen inguruan egituratuta.

GAIKAKO EREMUAK

- Suspertze ekonomikoa
- Enplegua eta prestakuntza
- Gizarte-kohesioa eta zerbitzu publikoak
- Hiri- eta ingurumen-birsorkuntza
- Lurraldea eta jasangarritasuna

Proiektu Sustatzaileek Ezkerraldea-Meatzaldea eskualdeko erronka estrategikoei egindako ekarpenaren mapa

Proiektuak	R1 Aukera-sektoreak sustatzea	R2 Gaitasunak eta enplegua egokitzea	R3 Gizarteratzea eta berroneratzea	R4 Aisialdirako eta turismorako aukerak	R5 Lurzorua deskutsatzea eta kudeatzea	R6 Garraio-azpiegiturak
Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa + EIC	✓	✓			✓	
Osasun Poloa	✓	✓			✓	
Lurzoru kutsatuak leheneratzea	✓		✓	✓	✓	
Jarduketa integrala auzo kalteberetan		✓	✓	✓		✓
C2 (Bilbo-Muskiz) lineako jarduketa				✓		✓
Ondare industrialari eta itsasadarrari balioa ematea			✓	✓	✓	✓

Eskualdeko Diagnostikoan identifikatutako erronka estrategikoei heltzeko, sei proiektu sustatzaile identifikatu ziren, eta horietako bakoitzak hainbat jarduketa zituen.

PROIEKTU SUSTATZAILEA		HELBURUA
EM1	Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa	Ekonomia suspertzea berrikuntzaren eta trantsizio energetikoaren bitartez.
EM2	Osasun Poloa	Osasuna, berrikuntza eta oinarri biosanitarioa duen jarduera ekonomikoa sustatzea.
EM3	Lurzoru kutsatuak berreskuratzea	Lurzorua leheneratzea, ingurumen-berroneratzea eragitea, eta jarduera ekonomikorako gaitasun berria eskaintzea.
EM4	Jarduketa integrala auzo kalteberetan	Gizarte-kohesioa, hiri-berroneratzea eta bizigarritasunaren hobekuntza sustatzea.
EM5	Garraio jasangarriaren eredua	Mugikortasuna, irisgarritasuna eta garraio-azpiegiturak hobetzea.
EM6	Ondare industrialari eta itsasadarrari balioa ematea	Balioa ematea eskualde-identitateari, kulturari, aisialdiari, turismoari eta itsasadarraren frontea berroneratzeari.

Aurrerapen-maila jarduketa bakoitzeko.

AURRERAPEN-MAILA

EZKERRALDEA-MEATZALDEA		JARDUKETAK		EJ	BFA	1	2	3	4	5
EM1 Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa + EIC	EM1	Sarbideak eta urbanizatzea	EM1.01	X	X					2021
	EM1	Energy Intelligence Center eta egoitza-eraikina	EM1.02	X	X					2023
	EM1	Tresneria	EM1.03	X	X				●	
	EM1	María Telkes eraikina	EM1.04	X					●	
	EM1	Ortuellan lursailak erostea	EM1.05	X					●	
	EM1	Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa garatzea	EM1.06	X	X				●	
	EM1	Energia berriztagarrien HUBa - Somorrostro Irakas-gunea	EM1.07		X				●	
EM2 Osasun Poloa	EM2	Kokapenean inbertitzea	EM2.01	X						2022
	EM2	Osasun Poloa eraikina	EM2.02	X	X				●	
EM3 Industria-lurzoruak berreskuratzea	EM3	Burtzeña Parkea (lurzoruak erostea eta berroneratzea)	EM3.01	X					●	
	EM3	Barri eta Sakoni hondartzak, Erandio	EM3.02	X					●	
	EM3	Etxeuli, Santurtzi	EM3.03	X					●	
	EM3	Eraik. Navacel eraikina (erostea eta berroneratzea)	EM3.04	X					●	
	EM3	Babcok Trapaga jantokiak erostea	EM3.05	X						2025
EM4 Jarduketa integrala auzo kalteberetan	EM4	Abanto-Zierbena, Las Peñucas auzoa	EM4.01	X					●	2023
	EM4	Portugalete, esku-hartzea Grumete Diego kalean	EM4.02	X						2023
	EM4	Santurtzi, esku-hartzea Aurora Vildosola kalean	EM4.03	X					●	
	EM4	Trapagaran, San Andres auzoa	EM4.04	X					●	
	EM4	EtxeTIC proiektua	EM4.05		X					2024
	EM4	Sestaoko egoitza, bizikidetza-unitateak	EM4.06		X	●				
	EM4	Egoitzak bizikidetza-unitate bihurtzea	EM4.07		X				●	

Aurrerapen-maila:
1 Bertan behera utzita
2 Hasi gabe
3 Diseinatzen
4 Gauzatzen
5 Burututa

Aurrerapen-maila jarduketa bakoitzeko.

EZKERRALDEA-MEATZALDEA		JARDUKETAK		EJ	BFA	AURRERAPEN-MAILA 1	2	3	4	5
EM5 – Garraio jasangarria	EM5	Urbinagako trukatze-gunea	EM5.01	X				●		
	EM5	Bizkai Bizi	EM5.02		X					2024
	EM5	Bizkai Park	EM5.03		X					2024
	EM5	Bizkai Puntu	EM5.04		X					2023
	EM5	Erandioko Bulebarra	EM5.05		X				●	
	EM5	Barakaldo eta Erandioren arteko zubi mugigarria	EM5.06		X				●	
	EM5	Bidegorri Bilbo-Barakaldo	EM5.07		X					2023
	EM5	Gurutzetako Ospitaletarako sarbideak	EM5.08		X					2023
	EM5	Ibai-azpikoa, itsasadarraren azpiko tunela	EM5.09		X			●		
	EM5	Mamariga Santurtzi bidegorria	EM5.10		X					2024
	EM5	Gurutzetako II. trukatze-gunea	EM5.11		X				●	
EM6 Itsasadarraren ondarea balioztatzea	EM6	Sestaoko Labe Garaia zaharberritzea	EM6.01	X	X					2023
	EM6	Orconera industria-ondarearen zentroa	EM6.02	X						2024
	EM6	Industria-ondarearen ibilbidea	EM6.03	X						2023
	EM6	RENFE geltokiak + tren historikoa	EM6.04	X						2025
	EM6	Gasolino	EM6.05	X						2023
	EM6	Rialia museoa	EM6.06	X						2022
	EM6	Labe Garaiaren eta Langileen Etxebizitzaren bisitarientzako gunea	EM6.07	X	X					2023
	EM6	Burdin Mendien Bide Berdea	EM6.08	X						2023
	EM6	Itsaslur Bide Berdea	EM6.09	X						2023
	EM6	Seinaletika eta gobernantza-eredua	EM6.10	X						2023
	EM6	Agurtza atunontzia	EM6.11	X						2023
	EM6	AHV tren-makina	EM6.12	X						2022
	EM6	Pobaleko Burdinola	EM6.13		X				●	
	EM6	Ondarea balioztatzeko ekitaldiak	EM6.14		X					2023
	EM6	Unesco Katedrarekin lankidetzan aritzea	EM6.15		X					2023

2021-2025 aldiko aurrekontuaren erabilera

PROIEKTU SUSTATZAILEAK			PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUTA	ERABILITA	erabilitako %
EM1	Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa + EIC	EJ	46195267	50171095	% 108,61
		BFA	29079529	34930871	% 120
		GUZTIRA	**75274796**	**85101966**	**% 113**
EM2	Osasun Poloa	EJ	10000000	13816156	% 138
		BFA	500000	0	% 0
		GUZTIRA	**10500000**	**13816156**	**% 132**
EM3	Lurzoru kutsatuak leheneratzea	EJ	60000000	67570664	% 113
		BFA	-	-	-
		GUZTIRA	**60000000**	**67570664**	**% 113**
EM4	Jarduketa integrala auzo kalteberetan	EJ	18000000	18000000	% 100
		BFA	1850000	1759000	% 95
		GUZTIRA	**19850000**	**19759000**	**% 100**
EM5	Garraio jasangarriaren eredua	EJ	-	-	-
		BFA	34794680	46200336	% 133
		GUZTIRA	**34794680**	**46200336**	**% 133**
EM6	Ondare industrialari eta itsasadarrari balioa ematea	EJ	10000000	10000000	% 100
		BFA	1155595	1848186	% 160
		GUZTIRA	**11155595**	**11848186**	**% 106**
EM EPE, GUZTIRA			**211575071**	**244269308**	**% 115**
EUSKO JAURLARITZA			**144195267**	**159557915**	**% 111**
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA			**67379804**	**84738393**	**% 126**

EPEaren aurrerapen-maila 2020-2025 aldian

Proiektu Sustatzaileen aurrekontu osoa nola erabili den

	AURREKONTUA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
1. Proiektu Sustatzailea: Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa + EIC	78.049.732 €	75.274.796 €
2. Proiektu Sustatzailea: Osasun Poloa	13.816.156 €	10.500.000 €
3. Proiektu Sustatzailea: Industria-lurzoruak berreskuratzea	67.570.664 €	60.000.000 €
4. Proiektu Sustatzailea: Jarduketa integrala auzo kalteberetan	19.759.000 €	19.850.000 €
5. Proiektu Sustatzailea: Garraio jasangarriaren eredua	46.200.336 €	34.794.680 €
6. Proiektu Sustatzailea: Ondare industrialari eta itsasadarrari balioa ematea	11.848.186 €	11.155.595 €

Aurrekontuaren erabilera-ehunekoa proiektu sustatzailearen arabera

EM 1	% 113
EM 2	% 132
EM 3	% 113
EM 4	% 100
EM 5	% 133
EM6	% 106

EM 1: Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa + EIC



AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Euskadiren eta Europaren etorkizuna teknologiaren ikuspuntutik markatu dezakeen apustu handietako batean kokatzea eskualdea: hidrogenoan.
- Enpleguan eta hazkunde ekonomikoan duen eragin sustatzaileaz gain, bere izaera ospetsuak eskualdeko marketina eta kanpo-proiekzioa sustatzeko aktibo bihurtzen du proiektua.
- Funts gehigarrien helburua ezarritako jarduketak 2021-2022 aldian bizkortzea –eta ahal bezain pronto gauzatzea– izango da.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoa, gaur egun, Abantoko Campusean integratuta dago Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen barruan, eta parke hori garatzea eta Energy Intelligence Center (EIC) abian jartzea dira eskualdearen eraldaketa ekonomikoa bultzatzeko planaren apustu estrategiko nagusietako bi. Proiektua, hasierako aurreikuspen bat izatetik, errealitate operatibo bihurtu da**, eta aktibatu egingo ditu lurzoru produktibo kualifikatua, azpiegitura aurreratuak,** ekipamendu teknologikoak eta energian, deskarbonizazioan eta berrikuntza aplikatuan espezializatutako enpresa-ekosistema. Horri gehitu behar zaizkio hidrogeno berriztagarriarekin, mugikortasun deskarbonizatuarekin, digitalizazioarekin eta talentuaren prestakuntzarekin lotutako gaitasun berriak. Izan ere, **Maria Telkes eraikinak, Euskadiko Datu Zentroak** eta **Energia Berriztagarrien Hubak** gaitasun horiek indartu dituzte. Oro har, aurrerapen horiek agerian uzten dute ingurune estrategiko bat finkatu dela, eta horrek gaitasuna du enpresak erakartzeko, enplegu kualifikatua sortzeko, berrikuntza bultzatzeko eta Ezkerraldea-Meatzaldea industria- eta energia-trantsizioaren erreferentziazko polo gisa kokatzeko.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

+15 enpresa ezarri dira
Abantoko Campusean

400 enplegu sortu dira
lotutako jardueretan

EICeko
18.932m²
erabilgarri

EM 2: Osasun Poloa

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Eskualdeko ekonomia- eta enpresa-dibertsifikazioari mesede egingo dioten goi-mailako enpresa teknologikoak, sanitarioak, soziosanitarioak edo antzekoak erakartzeko eragile gisa jardutea.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

Ezkerraldea-Meatzaldeak osasun-gaitasun ugari ditu –bai laguntzaren, bai ikerketaren alorretan– eskualdean pisu handia baina enpresa-proiekzio mugatua dituen sektore batean. Hori oinarri, EPEak enpresak erakartzeko osasun-polo bat garatu nahi du, ETEei nahiz enpresa sortu berriei laguntzeko, eta lankidetza publiko-pribatuko eredu baterantz aurrera egiteko.

Proiektuari lotutako eraikina amaitzear dago eta, hura burutu ondoren, ekimenari euskarri fisiko jakin bat emango dio bere jarduera garatzeko. Gainera, ekimenaren egiazkotasuna eta eraginkortasuna ere indartuko ditu. Lizitazioa 2023aren amaieran jarri zen abian, lanak 2024ko ekainaren bukaeran hasi ziren, eta 2026ko apirilean amaitzea aurreikusi zen.

Eraikina 2260 metro koadroko okupazioa duen lurzati batean egongo da, eta zortzi solairu (behekoa + sei solairu eta sotoa) eta 27,10 metroko altuera izango ditu. Azalera eraikia, guztira, 13.524,42 metro koadrokoa izango da (11.300 m² enpresetarako espazioetan), eta eraikuntza-aprobetxamendu ia osoa agortuko du.

Oinarri horretatik abiatuta, Osasun Poloa egungo eskualde-gaitasunak bultzatzeko espazio gisa planteatu da, Ezkerraldean jarduera ekonomiko berriak garatzen laguntzeko.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

13.524 m²-ko azalera

eraikia, guztira

EM 3: Industria-lurzoruak berreskuratzea

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Proiektuak espazio handiak egokitu eta, ondorioz, eskualdean inbertsio eta jarduera berriei atea irekitzeko oinarriak ezarri ditu.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

EM3 proiektu sustatzailea Ezkerraldea-Meatzaldearen erronka historiko nagusietako bati modu egituratuan heltzeko apustu estrategikoa da: iragan industrialetik jasotako industria-lurzoru degradatu eta kutsatuko azalera handien existentziari, hain zuzen. Horiek horrela, proiektuak espazio horiek berreskuratu, deskutsatu eta berraktibatu nahi ditu, ingurumen-pasibo zaharrak eskualdearen garapen ekonomiko, urbano eta teknologikorako aukera berri bihurtuz.

Aldizkako saneamendu-jarduketetatik harago, EM3k lurzoru produktiboak berroneratzeko eskualde-mailako estrategia egituratzen du, enpresa-lurzoruaren eskaintza zabaltzera, jarduera berriak ezartzea erraztera eta lurralde-lehiakortasuna indartzera bideratuta. Burtzeña, Etxeuli, Barri-Sakoni hondartza, Elguero, Navacel eta antzeko eremuetan dagoeneko erregistratutako aurrerapenek agerian uzten dute eraldaketa martxan dagoela, eta lurzorua eskuratzea, ingurumen-berroneratzea, urbanizazioa eta garapenerako baldintza giltzarriak desblokeatzea dira horren oinarria. Oro har, proiektua palanka garrantzitsu gisa sendotu da lurzoru produktibo berria aktibatzeko, inbertsioa mobilizatzeko eta eskualdearentzako berroneratze- eta garapen-ziklo berri baten oinarriak ezartzeko.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

Burtzeñako lurzoruaren
% 80 baino gehiago kontrolpean dago jada

450.000 m²-ko lurzoru
berreskuratuta edo aktibazio-fasean

EM 4: Jarduketa integrala auzo kalteberetan

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Gizarte-arrakala murriztea, desberdintasuna murriztea, eta gizarte-kohesioa hobetzea.
- Energia-kontsumoa eta CO^2 emisioak murriztearen ondoriozko ingurumen-inpaktua.
- Birgaitze-lanei lotutako merkataritza eta ekonomia suspertzea.
- Bizi-kalitatea, ongizatea eta eskualdearen eraldaketa sozioekonomikoa eta soziodemografikoa hobetzea.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

EM4 proiektu sustatzaileak esku-hartze integrala garatu du auzo kalteberetan, eta Abanto-Zierbenako, Portugaleteko, Santurtziko eta Trapagarango **332 etxebizitzatan** jardun du. Eraikinak birgaitzeko eta urbanizatzeko obra nagusiak 2024 eta 2025 artean gauzatu dira, eta gehienak 2025aren amaierarako bukatuko dira; azken lanak 2026rako aurreikusi dira. Jarduketa horiek irisgarritasuna, energia-efizientzia, bizigarritasuna eta hiri-ingurunearen kalitatea hobetu dituzte, eta eragin zuzena izan dute herritarren bizi-kalitatean. Aldi berean, erakundeen arteko gobernantza-eredu koordinatua finkatu da, kalteberatasuna monitorizatzeko sistemekin, dinamizazio-planekin eta 2023tik aktibo dauden hurbileko bulegoekin; horiek guztiek gizarte-laguntza eta herritarrentzako zuzeneko arreta erraztu dituzte.

Proiektuak hobekuntza fisikoa eta esku-hartze soziala uztartzen ditu, eta etxe kalteberenak lehenesten ditu. Segurtasuna, erosotasuna eta hiri-ingurunea hobetu ditu, eta etxeTIC eredua txertatu du, zaintzak eta herritarren ongizatea indartzeko.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

332 etxebizitza
birgaitu dira

+80 etxe kaltebereri
eman zaie arreta

3 hurbileko bulego
aktibo

EM 5: Garraio jasangarria

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Eskualdeko komunikazioak eta mugikortasuna hobetzea, hiriguneak euren artean gero eta gehiago integratzeko.
- Garraio-sistema integratuagoa, jasangarriagoa eta seguruagoa sortzea, eskualdeak erakartzeko duen ahalmena handitzeko.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

2021 eta 2025 artean, EM5 proiektu sustatzaileak garraio-eredu integratuago eta jasangarriagoa bultzatu du Ezkerraldea-Meatzaldean **udalerrien arteko lotura hobetzeko, hiri-oztopoak murrizteko, eta ekipamendu estrategikoetarako sarbidea errazteko**. 34,8 milioi euroko aurrekontu esleituaren aldean, 46,2 milioi euro erabili dira, eta proiektuak dagoeneko operatibo dauden jarduketak eta egiturazko beste jarduketa batzuk uztartzen ditu, eguneroko mugikortasuna eta lurralde-kohesioa indartuz.

Aurrerapen nabarmenen artean dago Mamariga-Santurtzi bidegorria zerbitzuan jartzea, dagoeneko amaituta dagoen mugikortasun aktiboko azpiegitura baita. Horrez gain, eskualdeko sarea zabaltzen duten jarduketak garatu dira, hala nola Bilbo-Barakaldo bidegorria, Gurutzetako II. trukatze-gunea eta Gurutzetako Ospitalerako sarbideak. Gainera, Bizkai Bizi, Bizkai Park eta Bizkai Punto soluzioak hedatzeak ereduaren kapilaritatea indartu du, aukera jasangarriak herritarrengana hurbiltzen baititu eta segurtasunean, irisgarritasunean eta bizi-kalitatean eragin zuzena duen mugikortasun-sarea sendotzen baitu.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

50.000 pertsona
mugikortasunaren hobekuntzaren onuradun

1 azpiegitura
amaituta eta martxan

3 kapilartasun-jarduketa
(Bizkai Bizi, Bizkai Park eta Bizkai Punto)

EM6: Ondare industrialari eta itsasadarrari balioa ematea

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Eskualdeko estrategia koordinatua sortzea ondare- eta industria-aktibo nagusiak berreskuratzeko, aktibatzeko eta proiektatzeko.
- Ekonomia-arloko eta ingurunea berroneratzeko aukera berriak bultzatzea eskualdeari lotutako irudia, erakargarritasuna eta zerbitzuak hobetzeko.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

EM6 proiektu sustatzaileak aurrerapen oso esanguratsua izan du, eta eskualde-mailako estrategia bat sendotu du industria-ondarea eta itsasadarra kultura, turismo eta lurraldea berroneratzeko eragile bihurtzeko. Esparru horretan, aktibo ospetsuak aktibatu eta konektatu dira, hala nola Sestaoko Labe Garaia, Langile Ibilbidea, Cuarto de Socorroko Turismo Bulegoa, Langileen Etxebizitza, Lutxanako geltoki historikoa eta Orconerako multzoa. Horrela, ondare-sare irisgarriagoa, koherenteagoa eta bisitagarriagoa eratu da. Horrez gain, Rialia Museoa eta antzeko instalazioak modernizatu dira, Agurtza atunontzia eta AHV12 tren-makinak baliabide bereziak berreskuratu dira, eta Montes de Hierro Bide Berdea eta Itsaslur Bide Berdea ibilbide jasangarriak indartu dira.

Horrek guztiak agerian uzten du proiektua martxan dagoela jada, bisitetan, birgaitzean, irisgarritasunean eta balioa emateko jardueretan egiazta daitezkeen emaitzek islatzen dutenez. Era berean, Ezkerraldea-Meatzaldearen memoria industriala kultura-azpiegitura bizi bihurtzen ari da, identitatea, jarduera ekonomikoa eta kanpo-proiekzioa sortzeko gai den azpiegitura baten esparruan.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

19.035 bisitari
Rialia Museoan 2023 eta 2025 artean

2 bide berde
industria-lurraldean zehar ibiltzeko

2834 aurrez aurreko kontsulta
Cuarto de Socorro delakoan

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bizkaia

nexio. consulting
an ieteam_ company

Eskerrik asko!!

Ezkerraldea-Meatzaldea
Eskualdeko Plan Estrategikoa

2026ko apirila

ABANTO ZIERBENA UDALA • AYUNTAMIENTO · Barakaldo CIUDAD·HIRIA · Erandioko Udala · MUSKIZ UDALA · Ortuella Udala · Ayuntamiento de Portugaleteko Udala · Santurtzi · Sestao Udala Ayuntamiento · Trapagaran · ZIERBENA ITSASOKO ZAPOREA SABOR A MAR